

OSAKIDETZA

Lehenengo eta behin esan digute ez dutela agiririk ekarri guri aurkezteko, egindako ekarpenez oraindik hausnartzen ari direlako. Dena dela, Mahaiaren otsaileko bileran hitz egindakoaz gauza bat edo beste argitu nahi ziguten. Orduko hartan gauzaren bat eztabaidatu bazen, eta gaur eztabaidatzen ez bada, ez du esan nahi erretiratu denik, baizik eta ekarpen berririk ez dagoela.

- 2016 EPE

Etortzeko den 2016-EPEaren gaineko analisia eta txostena eginda daudela esan digute, eta azkenean 1079 plaza eskainiko direla, 929 plaza txanda irekitik eta 150 plaza barne-sustapenetik. Deialdia 2016ko plaza-kopuruarekin egingo dute, baina proba hurrengo hauteskundeen ondotik aterako den gobernu-taldeak erabakiko ditu, batetik, gauzatzeko modua, eta bestetik, ea batu ahal izango den 2017 eta 2018ko deialdiekin. Kategoriak ez dira zehaztu, baina lehentasuna emango zaie 2014-2015 deialdian eskaini ez ziren kategoriei.

- LEKUALDATZE LEHIAKETA

2014-2015 EPEan dei egindako plaza-kopuru eta kategoria berberak eskaintzeko asmoa dute. Diotenez eskuzabalak dira, eta TEL plaza-kopurua ugalduko dute (ez dakigu zenbat), lehenago EPE-deialdirik izan ez delako.

- PLANTILLA UGALTZEA

Ez dute ezer berririk ekarri, gogoratu digute berriro plantilla ugaltzeko espedientearekin dabiltzala: iazko 100 plaza, funtsean Gernikako Ospitalea irekitzearekin loturikoak, eta osasun-zentro batzuetakoak; eta aurtengo 350 plaza, Urdulizko Ospitalearen datorren irekitzearekin loturikoak. Ez dute ezer gehiago zehaztu, ez kategoriarik, ez banaketarik, ez kokapenik.

- KONTRATAZIOAREN AKORDIOA

Kontratazioaren zirriborro berrian aurkituko ditugun aldaketak aipatu dizkigute, baina eskegi duten dokumentuan esaten dena baino gehiago ez digute esan. Antolakundeetan sortuko diren lanpostu hutsen gainean kontrol zorrotzagoa ezartzea proposatzen dute: hasieratik Gasteiztik eskainiz, nahiz eta gero barne-sustapen edo zerbitzu-eginkizun bidez eskaini. Ikusiko dugu zertan geratuko den hori guztia dokumentuan.

- BITARTEKO KONTRATAZIOEN ESKAINTZA UGARIA

Kontratazio-zerrendak urtean behin eguneratzeko eginbeharra dutenez, lehen lauhilekoaren amaieran, apirilean, behin betiko zerrenda eguneratuak aterako dituzte. Eta, bidenabar, maiatzean bitarteko kontratazioen eskaintza ugaria aterako dute, hurrengo kategoria hauek hartuz: erizainak, erizain-laguntzaileak, zerbitzu-langileak eta zelariak.

- URDULIZKO OSPITALEKO LANPOSTUAK ALDI BATERAKO HORNITZEKO "AKORDIOA"

Mahaiaren otsaileko bileran aipatu zuten bezala, pertsonal zaharraren eta berriaren nahastura moduko bat egitea pentsatu dute. Esparru-hutsen hurrenkera "adosten/negoziatzen" ez den bitartean, 2000. urtean Urdulizko

beharrizanak betetzeko erabili zen akordioa erabiltzea proposatu dute, prozesua “azkartzeko” asmoz, baina ez dute proposamen zehatzik ekarri.

- **LIZENTZIAK ETA BAIMENAK**

Mahaiaren otsaileko bileran, 2016ko Negoziazio Eskaintzaren barruan lizentzien eta baimenen gaineko argibideak edo zehaztapenak sartu zituzten, baina eskaintza zehaztu barik. Joan den bilerara eskaintza horren zehaztapena ekarri dute, non aurreko artikuluei buruzko argibideak eman diren, eta Administrazio Orokorrean egindako hobekuntzak gurera ekarri diren.

- 38 art.: Oporrak eta aldi baterako ezintasuna. Oporrak ordaindu behar dira edo bajaldiaren ondoren hartu, baldin eta oporrak sortu diren urtea amaitu eta 18 hilabete igaro ez badira. Europako Auzitegiaren epaiek horretara behartu dute.
- 44 art.: Lizentzia, haurdunaldiagatik, erditzeagatik, edoskitzaroagatik, adopzioagatik edo harreragatik.
 - Baimen ordaindua eskaini dute 37. asteko 1. egunetik erditu arte. Haurdunaldi anitzaren kasuan 35. astera aurreratzen da (haurdunaldi anitzen estatistikak begiratzuz gero, oso emakume gutxi baliatu ahal izango dira “eskaintza” horretaz).
 - Edoskitzaroan dauden guardiak ordainduko direla bermatuko dute.
 - Edoskitze-lizentzia Osakidetza aita langileari ere emango diote, nahiz eta ama lanean ez ibili. Horretara ere epaiek behartuak.
- 45 art.: Aitatasun lizentzia. Lizentzia hori 28 egutegi-egunera zabalduko da, EAEko Administrazio Orokorreko langileek duten bezala.
- 57 art.: Baimena, kontsulta mediko, tratamendu eta azterketak egitera joateko, 2. mailaraino. BAIMEN BERRESKURAGARRIA (izenak berak dioenez, baimena emango dizute eta komeni zaien bezala itzuli beharko diezu).
- 62 art.: 50 orduko baimena. Oraingo baremoa kenduko dute. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren epaiaren aginduz.
- 63 art.: Legezko zaintzaren Baimena – Lanaldi murrizketa – Lanaldiaren zortzirena eta erdia bitartean. Langileen Estatutuan dagoena baino ez dute ematen.

- **LANBIDE-GARAPENA**

2011ko deialdien amaiera negoziatzeko aukera proposatu dute, baldin eta finantzaketa nahikorik balego, Eusko Jaurlaritzak ontzat emango balu, eta sindikatuekin adostuko balitz. Ez dute aipatu ondorioetarako datarik, ezta deialdi berririk ere... Nolanahi ere, ELAren proposamena negoziatzeko baztertu dute.

ELA

Mahai guztietan bezala, zaila da bat-bateko balioespen bat egitea, aldezturik dokumentazioa izan gabe.

2016 EPE: berriro esango dugu guk nahi dugun EPEa 5000 plazakoa izan behar dela. Oraingo planteamenduarekin jarraituz gero, ez dugu modurik ikusten behin-behinekotasunaren tasa gutxitzeko.

Lekualdatze-lehiaketa: gogoratu diegu “dohainik” ateratzen dela, ez dagoela mugarik birjartzeko tasetarako. Lanpostu huts guztiak eta kategoria guztiak hartzen dituen lekualdatze-lehiaketa bat nahi dugu. 2014-2015 EPEaren aldean, TEL kategorian eskaintzen den plaza-kopurua handitu daiteke, honen aurretik beste deialdirik izan ez dutelako. Ez dugu ulertzen zergatik EPE-deialdirik izan ez dituzten kategoriak zerbitzu-eginkizunetara jotzera zigortzen dituzten, hori baita geratu zaien bide bakarra nor bere bizilekura hurbildu nahi izanez gero. Ez dago gauzak konpontzeko borondaterik.

Plantilla ugaltzea: plantilla funtzionala eta egiturazkoa aurkeztuko digutenean, hitzeman ziguten bezala, orduan esan ahal izango dugu nahikoa, gutxiegia edo neurritz gainekoa den. Baina noiz entregatuko digute? Gaurko egunean ditugun datu bakarrak Eusko Legebiltzarrean aurkezturikoak dira, eta horien arabera dauden 450 plazak oso urruti daude 2015eko maiatzean aipatu zituzten behin-behineko 4.600etatik.

Bai Kontratazioaren Akordioaren planteamenduetan, bai Urdulizko Ospitaleaz hitz egitean, GARDENTASUNik eza sumatu dugu, eta gardentasuna oso preziatzen dugu guk. Ez dugu ulertzen ezkutuan ibiltze hori, zeren azkenean ezagutu egiten dira gauzak, Gurutzetan, esate baterako, atera behar diren burutza batzuegatik sortutako barne-borroken berri gureganaino iritsi dira.

Lanbide-garapena: haiek kendu zuten, eta haien esku dago aukera hori itzultzea, horretarako borondaterik izanez gero. Osterantzean, xantaia egiten ari direla ulertuko dugu. ELArekin akordioa egin ahal izango dute beti, baldin eta eredia aztertu eta buelta bat ematen bazaio.

OSAKIDETZA

Lekualdatze-lehiaketa: EPEarekin batzeko eta prozesua azkartzeko aitzakiaz baliatzen dira. Negoziatzeko prest daudela diote, plaza-kopurua apur batez handitzeari begira (kategoriak, EPEan jasotakoak).

2016 EPE: argi utzi dute plaza-kopurua bakarrik zehaztuko dutela, ez dutela asmorik kategoriak zehazteko, zehaztapen hori akordioa egitearen menpe uzten dute...

Gardentasunari dagokionez, plaza guztiei jarraipena egin ahal izango diegula utzi dute jasota aktan (EZ DUTE ESAN NOIZ).

Diotenez, Mahaiaren apirileko bileran zehaztu ahal izango dituzte: kategoriak, Urdulizen sortu behar diren 350 plazetako kide-kopurua, eta herenetako akordioaren zehaztapena (hurrenkera).

ELA: GALDE-ESKEAK

2012ko Lekualdatze Lehiaketari buruzko epaia, Lehen Arretako Fakultatibo Medikoa eta Pediatria kategorietan zelan aplikatuko den galdeturik, apirilean horren gaineko jarraibidea emango dutela erantzun digute. Ez dute zehaztu nola egingo duten. Egoera argitzeko eskatu diegu, ea lehiaketa eta EPEaren gerakinak lanpostu huts gehiagorekin zabalduko dituzten, edo prozesu guztiek 2012ko lekualdatze-lehiaketaraino egin beharko duten atzera (hala izanez gero, EPEaren plaza guztiak berriro esleitu beharko ziren, eta hortik eratorritako mugikortasunak...). Ez dute ezer argitu.

Urdulizko pribatizazioei dagokienez, gogoratu diegu prozesu penal bat irekita dagoela Gurutzetako esleipenetan irregulartasunak izateagatik; hori dela-eta, gomendagarria izango litzateke gardentasun

handiagoz jokatzeari, eta Osakidetzaaren pribatizatzeari erabakiari eusten dioten txostenaren teknika guri erakustea (erantzunik ez).